

Zanpantzarren auzia 2005, otsailaren 6a
--

Pertsonaiak :

Zanpantzar	Thomas
Epaile 1	Oscar
Epaile 2	Laura
Christine	Sergi
Geneviève	Marcos
Abokatua	Benjamin
Zirtzilak	Anaïs, Carolina, Jérémy, Yon, Marina, Julen, Maitane,

13 CM2 :

Carolina, Anaïs, Marina, Maitane, Laura

Oscar, Julen, Sergi, Thomas, Benjamin, Yon, Jérémy, Marcos.

Pertsonaiak : Zanpantzar, 3 epaile, 3 abokatu, 3 zirtzil (bat aurkezlea da) Christine eta Geneviève.

Aurkezlea : Jaunandereak entzulegoari isiltasuna eskatzen diot, epaitegiko jujeak eta abokatuak sartuko direlako.

Kaxkarrot martxa musika ozen bat hasten da. Epaileak lehenik, ondotik abokatuak, lekukoak eta azkenik zirtzilak sartzen dira. Musikak segitzen du eta aurkezleak segitzen du....

Epaile 1 : Jaun andereak arratsalde on. Gaur afera seriosa epaituko dugu.

Epaile 2 : Ohointzak gertatzen dira gure jantegian. Gure kantinan norbait sartzen da haurren jaurta guzien jateko

Epaile 1 : Bai, biziki grabea da afera, hobenduna gogorki zigortuko dugu

Epaile 2 : Entzun ditzagun lekukoak, Christine eta Geneviève hurbil zaitzte.

Chistine eta Geneviève aintzinatzen dira mikrofonorat :

- Christine : Bai aspertua naiz. Mixterio haundi bat bada gure kantinan jaurtak desagertzen dira.
- Geneviève : Jaurta pota huts bat erakusten du : Begira ! Badu 3 hilabete gauza bera gertatzen dela astelehen guziz.
- Christine : Norbait sartzen da kantinan eta jaurta untzi guziak jaten ditu gordezka.
- Geneviève : Gaur hobenduna atxeman eta kondenatu behar dugu.
- Zirtzil 1 : Segur naiz Zanpantzar izan dela berriz ere.
- Zirtzil 2 : Zanpantzar lodi horrek gure desertak jaten ditu.
- Abokatu 1 : Barkatu Jaunak bainan gu gara abokatuak eta ezin duzue Zanpantzar kondenatu ez badu epaiketan parte hartzen.
- Zirtzil 3 : Nun da Zanpantzar ? Nun gordetzen da ?
- Zirtzil 4 : Harrapatu behar dugu !
- Abokatu 2 : Bai egia da, inkulpatuak epaiketan parte hartzeko eskubidea dauka.
- Zirtzil 5 : Segur naiz atxemanen dugula, Goazen xekatzerat.

Denetan xeketzen dute.

- Zirtzilak : « Zanpantzar ! » « Nun haiz gizon madarikatua ! ? »
 « Atxemanen haugu urde zikina ».
 « Zanpantzar lodi nun haiz ! »

2 zirtzilek zanpantzar kantinatik ekartzen dute, beharrietatik kasik errestan tiratuz. Denen aintzinean ibiltzen dute.

- Zirtzil 6 : « Harrapatu dugu »
- Zirtzil 7 : « Etorri zaik azken orena »
- Zirtzil 1 : « Ohoina, lapurra ! »

Publikoaren aintzinean ibiltzen dute, alegia jotzen dute, oxtikoak emanez, eta itzulia bukatu ondoren, tauladaren aintzinean botatzen dute.

Abokatua : Epaiketa ez da oraino hasia, inkulpatua ez da oraino kondenatua. Bere inoxtentzia presontzioa errespetatu behar dugu.

Epaile 1 : Arrazoin duzu abokatu jauna. Ikus ditzagun zein diren gertakariak.

Epaile 2 : Zanpantzar xuti zaite . Zirtzilak jar zaizte ! Bi zirtzilek Zanpantzar altxatzen dute eta mikrofonoraino eramaten dute baina segitzen dute beharrien tiratzen.

Zanpantzar entzuten da oihuka

Zanpantzar : AiAiAiAiAiAiAiAiAiAiAiAiAiAiAiAi

Epaile 1 : Milesker zirtzilak ! (zirtzilak jartzen dira)
Zanpantzar zer ari zinen kantinan ?

Zanpantzar : (eskuekin beharriak goxatzen ditu eta grimasak eginez min duela oraino erakusten du). Barkatu epaile jauna ez zaitut ongi entzun, beharrietako mina dut.

Epaile 2 : Zertan ari zinen kantinaren barnean tenore honetan ?

Zanpantzar : Nik ez dut deus grabe egin epaile jauna. Kantinaren barnean nintzen egia da bainan ez dut fitxik jan. Pausa egiten ari nintzen unatua nintzelako. Goizean ainitz lan egin dut, atsedenaldir bat behar nuen.

Zirtzil 1 : Gezurria ! Zanpantzarrek ez du inoiz lan egiten, oroz guttiago igande goizetan.

Zirtzil 2 : Ahatik pausa maiz egiten duela hori gogotik sinetsiko nuke.

Abokatua : Ez dugu norbait kondenatzen ahal pausa egiten duelako. Begira ditzagun gertakariak, ez da hemen ezer kondenagarria denik. Auzi batean frogak behar dira. Frogarik gabe ez dugu nehor kondenatzen ahal.

Epaile 1 : Arrazoin duzue ez dugu frogarik, behar bada egiazki pausa egiten ari zen eta beraz Zanpantzar ez da xerkatzen dugun ebaslea.

Zirtzil 3 : Nola ez dela gure ebaslea ! Frogak nahi dituzue ? Frogak atxemanen ditugu.
Zanpantzar aintzina zaite, Altxa besoak (Hala egiten du)

Zirtzil batek atorra azpian gordeturik duen plastikozko zaku haundia zilatzen dio eta hortik 50 bat jaurta untzi erortzen dira.

Zirtzil 4 : hara frogak nun diren ! Zanpantzar da gure ohoina, gaixtagin bat da, hura da hobenduna !

Epaile 2 : Epaileak bilduko dira deliberatzeko.

Hanartean zirtzilek hartzen dute (besapetik, gerrikotik eta aztaletatik. Pantzarrek ez du gehiago zola hunkitzen.

Zirtzilak : Zanpantzar sutara botatuko zaitugu. Erreko zaitugu. Ogia bezala xigortuko zaitugu...

Epaile 3 : Gorteak deliberatu du eskolako haurrek behar dutela hautatu zanpantzarren zigorra, beren jaurtak jan dituelako.

Zirtzilek Zanpantzar ibiltzen dute haurren artean Oihukatuz : Sua Sua Sua Sua !

Zirtzil 1 : Haurrek deliberatu dute : Zanpantzar sutara kondenatua zara !

Kaxkarrot martxa berriz hasten da. Epaileak, abokatuak eta lekukoak altxatzen dira eta lerroan ateratzen sartu ziren bezala hastapenean.